

Savigny*

IHERING, Rudolph von



Rudolph von Ihering (Aurich 1818 - Gotinga 1892) juristen familia alemaniar bateko semea zen. Unibertsitate ugaritan aritu zen Erromatar zuzenbidea irakasten. Bere lanik nagusien artean, *Zuzenbide Erromatarraren espiritua* (1872), *Zuzenbidearen xedeaz* (1877) eta *Jurisprudenzia seriooki eta txantxetan* dira azpimarragarrienak. Savigny eta Stahl-en jarraitzailea izan zen.

Jurisprudenzia alemanak inoiz izan duen “izarrak distiratsuenaren” desagerpenak, Urtekari honetan berari buruz idaztera bultzatu nau. Albistea jasotakoan, artikulu bat idatzi nuen lehen zirraren pean, eta, gertakari honek Savignyren jaioterri den Main-eko Frankfurt hiriarekin zeukan loturagatik, bertan agertzen den egunkari batera bidali nuen. Ordurako erabakita neukanez desagertutako gizon ospetsuari Urtekari hauetan ere omenaldi bat egitea, honako hau idaztean ohartu naiz zeinen zaila den denbora epe labur batean gai berari buruz bitan jardutea. Eta lehenagoko artikuluak, funtsean, hemen esan behar dudan guztia jasotzen duenez, aldaketarik egin gabe kopiatzea erabaki dut. Bi ohar besterik ez dizkiot erantsi; ez nireak, Vienako Arndts-enak baizik: Savignyren jarraitzailea den jakintsu honek aipaturiko hiriko fakultatean haren oroimenezko ekitaldi bat inauguratzean duintasun osoz emandako hitzalditik hartuak dira.

Zure egunkariaren bidez jakin berri dut Savigny urriaren 25ean hila zela Berlinen. Aspalditik espero zitekeen albistea izan arren —eta nahiz eta azken hamarkadaz geroztik Savigny zientziatik desagertutako ospetsu handien artean zegoen—, zirrara sakon bat sortuko du gaur egungo jurisprudenzia berari zenbat zor dion dakiten giro guztietan. Beste inork baino hobeto hezuramaitzen zuen gure mende honen hasieraz geroztiko jurisprudenzia-ren historia. Denborak aurrera egin ahala, gure artean handi gisa agertzen diren gizon askoren distira itzalitakoan, berea are distiratsua izango da, eta berarekin hasten den zientziaren garai guztia bere izenaren inguruan mugituko da —beste batzuek lortu duten bezala—. Hori dela-eta, 1861eko urriaren 25a beste edozein egunen gainetik dago jurisprudenzia-arentzat, eta, ez badu itxaropen oro aienatzen uzten, ez baldin badu etorkizun distiratsua bat hiltzen uzten —1846ko urtarrilaren 8an, Puchta-ren heriotzaren egunean, gertatu zen legez—, baizik eta iragan loriatsu bat amaitzera mugatzen bada, urtetan fruiturik eman ez zuen zuhaitz bat botatzera, esan behar da zuhaitz honek, ostera, fruitu asko eman dituela, eta, historik gabe egon arren, itxura aparta duela oraindik; basoko beste zuhaitzen gainetik gailentzen dela, eta aberri alemanaren mugez bestalde ere ikusi eta ezagutu daitekeela, eta bere erorketaren albisteak denei eragingo diela: bere handitasunaren lekuko izan zirenengan zirrara sakona sortuko du, eta zuzenean edo zeharka bere zordun direla dakitenengan, eskertza. Utziezadazue hunkipen hau adierazten. Horretarako, egiaz, ez dago Frankfurtoko aldizkari bat baino egokiagorik; izan ere, Frankfurt izan zen 1779. urtean nazio alemanari gizon hau eman ziona, bere harresien barruan Goethe jaio zenetik hogeita hamar urtera. Izen honek jurisprudenzia-ren historiarako duen esanahia ez da Goetherenak alemaniar poesia eta literaturarako daukana baino eskasagoa; patuak bata bestearen alboan ipini nahi izan zituela ere pentsa daiteke, hain dira paraleloak bien patuak. Hilabete gutxi batzuk baino ez ziren falta izadiak beren existentzia materialari amaiera berbera eman zekien.

Hondamenez beteta zegoen Friedrich Karl von Savigny lehenbiziko argia ikusi zuen garaia, eta, Goethek bezala, bere sehaskan arruntke-

* IHERING, Rudolph von. “Savigny”, In: *Eleria. Euskal Herriko Legelarien Aldizkaria*, 3. zkia. Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1998; 105-112 or. Itzultzailea: Koro Garmendia (Iturria: *Gesammelte Aufsätze aus den Jahrbüchern für die Dogmatik des heutigen römischen und deutschen Privatrechts*, Band, 2, Aalen: Scientia Verlag, 1969; 1-21 or.)

riaren, ergelkeriaren, lengoaiaren ezpurutasunaren, dogmatismo sektarioaren iratxoak izan zituen begirale, horiek guztiak aurreko mendeko ohitura espiritualen bereizgarri, nahiz eta jurisprudentziaren ohiturak jarraituz, txirikordez hornituak zeuden. Baina bi sehasketara ez ziren hurbildu –gizon arruntenetara egin ohi zuten legez– gogaitasunaren putzarekin, sortzen ari zen indar berria geldiarazteko, bertan beren txirikorda eta ileordea eskaintza gisa ipintzera, baizik eta egunen batean beren bi esku indartsu eta gazteekin abailduko zituzten etsaiak seinalatzera. 24 urte zeuzkaten lehen kolpea eman zutenean, zeina munstro haien bihotzak zauritzeko aski izan baitzen; bataren kasuan, Von Goetz eta Werther-en irudietan gertatu zen, eta bestearen kasuan, “Edukitze eskubidean” (Marburgo, 1803); biak tradizioaletik eta nagusi ziren aurreiritzietatik aldendu ziren: bata izadira itzultzen, eta bestea juriskontsultu erromatarren metodo zientifiko jatorrera –hau ere izadira itzuli zela esan liteke nolabait–. Garai hartan nola utzi ziren espiritu juridiko fresko eta agortezina jariatzen zuten iturriak ixten eta lehortzen! –adituak jakingo du, bai, Justinianoren lege bilduman jasota dagoen jurista erromatarren literaturaz mintzo naizela–, zein arrea zegoen bizitzako beharrik berehalakoena asetzeko hor hartuko zen ura! Egun batean mundura pentsaera juridikoaren asmakizun aske gisa iritsi zena –bide batean, edozein pentsalarik aurkituko zukeen lekuan aurkituta–, xedapen legegile positibo bihurtu zen; pentsamendu juridikoa, jurista erromatarren erabakietan objektiboki jasota dagoena, hezurtuta agertzen zen banakako erabakietan, *Corpus Iuris*-eko “lege eta zatietan” isolatuta; horrela, pentsamendua sustatu beharrean, alferrikakoa bihurtzen zen. Leku guztietan bezala, norberaren pentsamenduak huts egiten duen lekuetan lagungarria izan ohi da besteen pentsamendura jotzea, aipamenetara alegia. Nork itxaro du halako zientzia batean gustua edo plazera aurkitzerik? Horrek adierazten du zergatik eman zioten Goetheren espiritua bezalakoa zeukatenez azkar bizkarra, ezinikusiz. Gure zientziaren zorionerako, Savignyk ez zuen gauza bera egin.

Savignyren espiritua, Goetherena bezala, oso gazterik heldu zen. Marburgon 1800. urtean doktore maila eskuratu ondoren, 21 urterekin hiri hartako fakultatean irakasle izendatu zuten, gazte-gazterik. Laster hartu zituzten aintzat bere merituak, eta aparte-ko irakasle izendatu zuten. Hiru urteren buruan, gorago aipatutako obra argitaratu zuen, orain aztertuko duguna. Obra hori, jurisprudentziaren gaur egungo egoeraren giltzarria dela esan daiteke eta, hasiberri baten obra izan arren, geroago Savignyk berak nahiz beste idazle batzuek jurisprudentzia birsortzeko egin zuten guztiaren muina jasotzen du: zatiketa tradizionalen, definizioen, arauen, esamolde teknikoan alferrikako zama astintzeko xedea du, bere aurrekoen kritikez lagunduta, ordura arte, Hugok ez beste, inork izan ez zuena; iturrien erabilera independientea, aurreiritzirik gabea, baina, batik bat, biderik nahaspilatuenean zehar jurista erromatarrei jarraitzeko gaitasuna, eta puntu isolatu eta adierazpen iheskorretatik abiatuz, teoriaren funtsezko ideiak eta ildo nagusiak deskribatzeko gaitasuna, pentsaera erromatarra berpizteko eta sistema erromatarra berreraikitze gaitasuna; hitz batean, jurisprudentzia erromatarren espiritua gogoratzeari eta bere obraren muina jasotzeari; eta, hori guztia, baita jurista ez den batek ere erakargarri izatearren erabiliko zukeen hizkuntza batean. Horrelakoak dira obra honen bereizgarri diren ezaugarriak. Nahiz eta gaiaren estiloa dogmatikoa den, aldi berean ekarpen historiko bat egiten du, hitzaren bi zentzuetan: garai hartako ideietatik isolatzen eta jurista erromatarrenetan murgiltzen jakin zuen norbaitek soilik idatz zezakeen, eta hori beste inork baino hobeto egiten jakin zuenak azterlan historikoen beharraz jabetuta behar zuen egon. Savignyk, uste hori kartsuki baieztatuz, liburutegiak aztertze asmoz egindako bidaia zientifiko batean eman zituen hurrengo urteak –Goethek Italiara egindako bidaiaren kontrapartida–, Erdi Aroko zuzenbide erromatarra aztertze batik bat, eta honen emaitza baliotsuak sei liburukiz osatutako bere *Zuzenbide erromatarren historia Erdi Aroan* obran azaldu zituen beranduago (1815-1831). Egia esan, zuzenbidearen historia literarioaren itxura hartzen zuen zuzenbidearen historiak, baina obra honi edozein izen emanda ere, bere balioa ez da inolaz ere murrizten, zeren eta aurkikuntza berri eta garrantzitsuek (mendebaldeko Inperio erromatarreko lurraldeetan zuzenbide erromatarren izandako jarraitasunak, unibertsitateek, Erdi Aroko historia literarioak, etab.) erromatarren osteko zuzenbidearen historiako literaturaren lehen lekuetako bat ziurtatzen dio. Zuzenbide erromatarren historiak, aitzitik, ez du mota horretako obra bateratzailerik ezagutu; monografia isolatu batzuekin konformatu behar izan zuen, horietako batzuk garrantzi handikoak izanik; batzuk Berlingo Zientzien Akademiako bilduman argitaratu ziren (*Abhandlungen*), eta beste batzuk Zuzenbidearen Zientziaren Historiako Aldizkarian, Savignyk berak Eichhorn eta Goeschen-ekin batera sortuan, eta geroago

(1850) bere *Denetariakoak* atalean (*Vermischte Schriften*) bildu ziren. Fenomeno hau beti izan zait deigarria, zeren eta norengandik espero zitekeen, bada, zuzenbide erromatarren historia, Eskola Historikoaren sortzaile izandako Savignyngandik ez bazen? Bere sena izan zen eremu hori lantzerantz bultzatu zuena, nahiz eta ikertzeko grinari hainbatean oztopo garaiezinak aurrejarri eta jakintzaren hutsuneak betetzeko lana hipotesiari utzi behar izan. Bestetik, Savignyk hainbat lagun eremu honetan abandonatzeak ez zion asko lagundu Zuzenbide erromatarren historia bultzatzen. Goldea irmoki erabili izan balu, kardua eta larrak ez ziratekeen zabalduko. Baina ez dugu Savignyk iturriak kritikatu izanagatik eta besteei iturri horiek argitaratzen utzi izanagatik nahigabetu behar.

Italiara egindako bidaiak amaitutakoan, 1808an, Savigny Landshut-era joan zen, eta, bi urte beranduago, sortu berria zen Berlingo Unibertsitatean, zuzenbide erromatarreko katedra Alemaniaren lehen mailara eramateko. Alde batera utziko ditugu eman zitzaizkion sari eta omenaldiak; ohorea, beretzat baino gehiago, eman zizkiotenentzat zela uste baitugu. 1842ra arte egin zuen lan zientifikoan ipiniko dugu arreta.

1814. urteak idazki arin bat egiteko aukera eman zion Savignyri, eta historian agian bakarra den ondorioa sorrarazi zuen. Domeinu frantsesak suposatzen zuen kanpo zamatik askatzeak, barne zama ere gaitetik ken zitekeenaren ideia paraleloa sortu zuen jende askorengan, beste garai batean jaso genuen eta Alemaniako leku askotan kontserbatzen zen –eta den– zuzenbide erromatarren itxura zeukan barne zama. Berezi Heidebergeko Thibaut aritu zen, beste zenbaiten artean, desira hau sutuki zabaltzen. Ez zen erraza iraganaren grabitazioan eta abertzaletasun porrokatuan oinarritutako, nazionalitatearen eta komenentzia praktikoen izenean eutsitako sentimendu honen aurka jartzea, hori egiteak benetako ospeari betiko uko egitea suposatzen zuen eta. Baina Savignyk *“Gure denborak legegintzarako eta zuzenbidearen zientziarako duen bokazioa”* idazkian eman zuen pauso hau. Savignyk legegintza nazionalaren ideia geldiarazi zuela onartuko balitz, gehiegizko omenaldia eskainiko litzaielike une haietan Alemaniaren etorkizuna zuzentzen zuten indarrei; horrela ikusita, bere idazkia ez zen beharrezkoa, eta ideia horren edozein aurkarik sostengu hobea aurkituko zukeen Ganbera Federalean (*Bundestag*), Savignyk zientziaren sakontasunetatik ateratako oinarri guztietan baino. Egia esan, aurki diezaiokegu bere idazkiari esanahi hilezkorra emango liokeen izenen bat, nahiz eta kasuala izan: berak egin du Eskola Historikoaren programa. Utz iezadazue idazkiaren esanahi iragankorrari buruz hitz batzuk esaten. Savignyren ustez, garai honek oraindik ez du Kode bat idatzi ahal izateko adina heldutasunik, eta zuzenbidea garaiz kanpo finkatu eta kodetzearen ondorioez ohartarazten gaitu. Hogeita hamar urte eskas geroago, Savigny Legegintzako ministro zen Berlinen. Garaia heldu zen, ala Savignyk ez zuen bere usteekiko leialtasunez jokatu? Esan beharra dago Savigny garai hartako juristen zabaldu zuten ikuskera zientifikoak begi onez ez ikusteko baimenduta zegoela, eta bere garaiak beregandik zer ikasi bazuela –ez arlo isolatuetan bakarrik, baizik eta bere iritzi eta kultura osotik– esateko baimena ematen zuen. Baina bokazio legegilea neurtzeko parametro gisa kultura zientifikoak erabiltzean, nire ustez, eta askori paradoxikoa irudituko zaion arren, Savignyk frogatzen zuen bera zela legegilearen bokazioa interpretatzen zuena. Egia bada Justinianok, bere garaian, beharrezkotzat jo zuen Kodeak –eta askok jarraitu dute bere adibidea, baita Landrecht prusiarak ere– zientziak azalekoa izateari uztea lortu zuela, eta,aldi berean, legegilea irakaslea izango bada eta Kodea ikasliburua, orduan Savignyk arrazoi guztia zeukan bere garaiko zientzia ohore hori jasotzearen aurka jarri zenean. Baina Kodeak eraginkorrak izatera mugatzen direnean, Zesarrari Zesarrarena dena utziz eta zientziari zientziarena, orduan, Erromako XII Tauletako historiak eta Karlos V.a enperadorearen heriotza auzitegiek erakusten diguten bezala, ez da hain kultura zientifiko handia behar Kode bat erabilgarri bihurtzeko, teoria hutsari dagokion guztia baztertu egiten da-eta. Bere egoera juridikoa berrantolatzeke edota, besterik gabe, bere zuzenbidea kodetzeko beharra sentitzen duen aro batek, baina, hala ere, zientifikoki behar adinako heldutasunik ez duelako besoak gurutzatuta gelditzen denak, ez du txiroa dela erakusten, baizik eta gehiegizko espiritu zientifikoak duela, eta aditzera ematen duena ez da pobrezia zientifikoak, pobrezia morala baizik.

Horri buruz pentsatzen dena pentsatzen dela ere, ez dio inolaz ere aipatutako idazkiaren esanahiari eragiten, eta Savigny nolako zen jakiteko besterik ez du interes eta garrantzirik bere garaian planteatu zen kuestioaren aurrean nola jokatu zuen jakiteak.

Gaiak interes bikoitza du guretzat, Savigny eta Goetheren artean finkatu dugun parekotasuna dela-eta; zeren eta nork ez du sumatzen Savignyren Goethe gogorarazten digun honako ezaugarri hau: bere denborarekiko agertu zuen objektibotasun hotza, eta harrokeria nazionalaren aurrean arrotz bat balitz bezala eta inolako interesik ez balu bezala jokatzea? Erabaki horren oinarrian, Savignyk bere arerioen aurka botatako ideien multzoa dago: zuzenbidearen izaera historikoari buruzko teoria bat –zuzenbidearen bila-kaeraren historiarako garrantzitsuak diren zertzelada batzuekin batera–, ordura arte nagusi zen ikuskera arrazionalistaren kontrakoa. Azken honek zuzenbidea zientzia juridikoaren produktu gisa besterik ikusten ez duen bitartean –hausnarketa eta ideiak biltzen dituen obra baten modura, zuzenbide bakoitza egokitasun eta perfekzioaren arabera neurtu behar dela esanez, objektu absolutuaren aurrean nazionalitateari muzin eginez–, historiak, ordea, erakusten du zuzenbideak ez direla asmatzen, baizik eta –lengoaia eta ohiturak bezala– eraiki egiten direla, herriaren bizitza eta pentsamenduaren barne-barne-tik sortzen direla; zuzenbidearen jatorrizko iturria ez dela legegintza, ohiturazko zuzenbidea baizik; eta nazionalitatearen ideia ez dela justifikazio soil bat zuzenbide honentzat; aitzitik, ezin da zuzenbidearen fenomeno historikotik banatu. Dena den, ez naiz luzatuko juristen domeinua eta zuzenbide erromatarraren harrera –bi fenomeno hauek herriak zuzenbidea sortzeko zeukan partaidetza guztiz galdua zeukan garaikoak izanik– zuzenbidearen ospearen ideia honekin nola uztartzen diren azaltzen, artikulu hau ahalik eta lasterren hel dadin zuen eskuetara.

Savignyk baino lehen beste zenbait pertsonak ideia bertsuak plazaratu zituzten arren, bere meritua da horiek guztiak lehen aldiz ikuskera zientifiko batean bildu izana, eta zientziari itxura zoragarri, argi, garden eta eder batekin eskaintzea. Ikuskera honetatik abiatuz, eta zuzenbidearen arlo ezberdinetara hedatzeko asmoarekin, Savignyk, Eichhorn eta Goeschen germanistekin batera, organo propio bat sortu zuen 1815ean, *Zuzenbidearen Zientzia Historikorako Aldizkaria*, eta oinarrian ikuspuntu bera zeukaten guztiak –hala nola, Eskola Historikoaren aldekoak– beren arerioei aurka egitera gonbidatu zituen. Azken hauei aurka egiteko, plan bat prestatu zuen, erraza bezain alferrikakoa, zeren eta jarraitzaileak aurkitu ahal izateko iragan mendera jo behar zen. Ekidinezina zen orduko zientziari esker bizi ziren ordezkari gehienen aurka zuzendutako eraso honek aurkakotasun eta haserrea sortzea, beste garai batean Goethek –bien arteko parekotasuna egiten jarraituz– Schillerrekin batera epigramen bidez (*Xenien*) bere garaikideen aurka sortutakoa bezala. Hasieratik ezatsegina izan zen borroka, berau hasi ahal izateko oposizioan tirabirak sortu behar zirelako, eta, denbora igaro ahala, bere indarra areagotu egingo zen, zeren eta, partiduen arteko borroka guztietan gertatu ohi den bezala, mota guztietako difamazio, kalumnia eta aurreiritziak nahastu ziren, eta liskar penagarri honek gai pertsonaletan amaitzeko arriskua egon zen; hainbestekoa, ezen aski baitzen Savignyngandik urrun egotea –personalki nahiz literalki– bere areriotzat jotzeko, eta beregandik gertu egotea Eskola Historikoaren aldeko gisa hartzeko. Oso goraipagarria ez den borroka hau bere horretan uzten saiatuko naiz; alabaina, Eskola Historikoari eta *Zuzenbidearen Zientzia Historikorako Aldizkaria*-ri dagokienez (*Zeitschrift für geschichtliche Rechtswissenschaft*), Savignyren obra handi guztietan errepikatzen den berezitasun bat aipatu beharra daukat: izenaren eta objektuaren arteko desberdintasun nabarmena. Jada adierazi dut *Zuzenbide erromatarraren historia Erdi Aroan* obrari dagokionez; aurreago, *Gaur egungo zuzenbide erromatarraren sistema*-ri buruz egingo dut, eta kanpoan utziko ditut *Edukitzaren zuzenbidea* –hor “zuzenbidea” obraren izenburuan soilik existitzen delako, liburuan zehar ez delarik ezertarako agertzen–, eta *Zuzenbidearen Zientzia Historikorako Aldizkaria*. “Historiko” hitzak, ikuskera politiko-historiko zehatz bat izan behar zuen programaren ondorioz. Horren justifikazioa ikuspuntu pare batetik egin zitekeen arren (filosofiko-juridikotik eta historikotik), ez ziren behin ere lehen alderditik egiten saiatu, eta, egia esan behar bada, ezta bigarrenetik ere, aldizkariaren 15 liburukietan azaldu diren monografietako batean ere ez baita proposamen hori frogatzera zuzentzen den inolako argudiorik azaltzen. Zuzenbideko instituzioak denbora igaro ahala aldatu egiten direla jakinarazten diete oraindik ez dakitenei, baina aldaketa hauek ez direla arbitrarioki sortzen, iraganarekin loturarik izango ez balute bezala, eta ez dela legegilearen jakinduria soilik hauek sortzen dituen; hitz batean, arerioek ezin dute material historiko guztia beraien aurka erabili; puntu hauei dagokienez, monografiak ez dute inolako azalpenik ematen. Programaren “ikuspegi historikoa”, aitzakia bat baino ez da aldizkarirako, aitzakia horren atzean ikerketa partzial historiko-juridikoak gorde baitira, ikuskera haren eraginik jaso ez dutenak.

Horregatik, ezin da azken ikerketen balioa gutxietsi, ezta Eskola Historikoaren meritu ere; aitzitik, bere izenez bataiatzen dugun orientazioaren eraginpean –Savigny bano lehen Hugok Gotingan hasitakoa, nahiz eta lehenak eman zion gailentasuna–, jurisprudentziak autoritate guztiz desberdina lortu du 50 urteren buruan; erabat eraldatu da, jurisprudentziaren historian zehar hain denbora gutxian halakorik gertatzea zaila den arren. Barkatuko didazue zertan datzan ez azaltzea; gehiegi aldenduko nintzateke Savignyrengandik, eta galdera horri jurista bakoitzak eman diezaioke erantzuna; beharko lioke behintzat. Dena den, kritika bat zuzendu behar zaio alderdietako bati, eta, joera honi guztiari eragiten dionez –eta bereziki Savignyri–, ezin dut aipatu gabe utzi. Teoria eta praktikaren arteko aldentzea da, Savigny berak aitortua. Eskola Historikoa agertzearekin batera hartu zuen gertakari honek lehen aldiz halako garrantzia. Itsua behar du izan teoriak inolako erantzukizunik ez duela dioena, baina itsua litzateke, baita, teoriari esker lortutako garapena –praktikari on asko egin diona–, ez dela garesti atera ahazten duena. Eskola Historikoari leporatu zaion beste gauza bat, bere jarrera politikoa da. Bere oinarrizko ezaugarriak kontserbadoreak dira, eta ezin zaio hori leporatu; historia ezagutzen dutenak kontserbadoreak dira beti. Baina joera politikoa horrek –kontserbadore izena gustura hartzen duena, eta iragana gurtzen– benetako kontserbadorimoarekiko –bilakaera kontserbatzeko joera daukana, baina ez bilakaera beragatik, etorkizuneko bilakaera baten hazia delako baizik– daukan desberdintasuna da etorkizunari kendu egiten diola iraganari ematen diona: iraganerako eskubidea (*Recht des Werdens*). Eskubide hau, interes praktikoaren arabera zuzentzen denean –kontserbadorismo feudal edo aristokratikoaren kasuan bezala (*Junker-Conservatismus*)–, oso ulergarria izaten da; baina oinarri hori falta zaionean, kontserbadorismo erromantiko gisa jarduten duenean, jakintsuen bulegoko produktu xume bilakatzen da. Jakina da Eskola Historikoak azken joera honen alde egin duela. Iragan organikoari buruzko teoriak –buruarinki hainbeste aldiz berritu dena, barrukoa kanpora azaleratzen dela aldarrikatzen duena eta iragan mendeko ikuskera historiko arrazionalistarekiko hain aurreratua dena–, beste aldera desbideratzeko arriskua zeukan eta dauka, bereziki honakora: ez aintzat hartzera giza energiaren balio nahiz garrantzia, eta hautamen askeak, hausnarketak eta borondateak historian duten papera. Eskola honen aldeko askoren iritzian, zigortuta dago gizakia, bilakaera historikoaren joanean kontzienteki eta hausnartuta esku hartu ezin izatera, gizadiaren eginkizuna besoak gurutzatuta egotea balitz bezala, etorri beharrekoa bilakaerak ekartzeko zain lotan egotera, eta iraganean gauzak giza jardueragatik ez, baizik beste nolabait “bat-batean jazo” izan balira bezala. Teoriak pizten duen ikara hau oso lagungarria izan zen Berrezarkuntza garaiko asmo praktiko-politikoentzat, existitzen zena mantentzen saiatzen baitziren, eta gobernuentzat Eskola Historikoa izena goxoa zen arren, herriaren moralari ezatsegina iruditzen zitzaion. Arbuio honek eskolaren sortzaileari eragin zion batik bat.

Edukitzari buruzko idazkia egin ostean, Savigny alde batera utzi zuen dogmatismoaren eremua bere literatur jardueran, eta ildo historikora jo zuen; aski izan zen hori egitea, bere talentuaren aldebakartasunagatik edo bere joeragatik egin zuela esaten hasteko. 1840. urteak guztiz isilarazi zituen aurreiritzi horiek. Urte hartan, ikuskera zabalaren obra bat azaldu zen, hiru liburukitan banatua: *Gaur egungo zuzenbide erromatarren sistema* delakoa –bizitza luze baten fruitua, denbora luzez heldutakoa–, mundu juridikoan benetako zirrararik sortu zuena. Esan beharra dago giro batzuetan zioten miresepen itzela agertzen zioten arren, ez zuela jende guztiak miresten, ez baitziren atsekabea adierazi zutenak faltatu, praktikoaren artean batez ere. Obrari arrazoi guztiarekin lepora zitzaiokeena, ezarri zion “gaur egungo zuzenbide” izenburuaren eta edukiaren arteko desoreka zen; baina ez Savigny zuzenbide erromatarren zati hilak berpiztu eta indartzeko egin zuen ahaleginagatik –zuzenbidearen historialariarengandik espero zitekeen bezala, eta bere jarraitzaile askok egin bezala–, baizik eta harrigarria zelako irakaslea bere jarraitzaileek berekiko zeukaten iruditik horrenbeste aldendu zela ikustea, ia beste muturrean ipiniz, bere aurkari askoren parean, zeintzuei praktiko deitzen baitzitzaien, historialariak ez zirela argi zegoen eta. Hala ere, gaitzespen horrek bazuen justifikaziorik: Savigny, azkenean, beti gaur egungo zuzenbidera itzultzen bada ere, ez du beti zuzenbide zaharren bide luzea laburtzen –ez beretzat, ez irakaslearentzat–, ezta ulermena errazteko inolako erabilkortasunik ez duenean ere (adibidez, teoria bati buruzko azalpen historiko zehatz batzuek gaur egungo zuzenbiderako balio guztia galdu dutela ondorioztatzen denean). Gaitzespena ongi ulertzeko, ez da esan behar obra izenburuarekin bat ez datorrenik, baizik eta izenburua ez datorrela obrarekin bat, galdu egiten baita obrak eskaintzen duena.

Utz iezadazue azken honi dagokionez isiltasuna gordetzen. Baina nola liteke Savigny bezalako gizon batengan meriturik ez ikustea, horiek ez balitu ez litzateke Savigny izango-eta! Hala eta guztiz ere, xehetasun bat azpimarratu beharra daukat, bere gabestia nabarmenegia izango ez zatekeen arren. Gorago aipatu dugun berbera da (legegintzaren arazoari buruz zeukan jarrerari buruzkoa), baina errepikatu egin behar dut, ezinbesteko ezaugarri bat ematen baitigu Savignyren izaera irudikatzen. Izaeren artean oso argi azaltzen dira elkarren aurkako aniztasunak, gure literaturaren historiak, modu ideal batean, Schiller eta Goetheren bitartez erakusten diguna. Bietako bat bere indar guztiekin lotzen zaio gaiari, inolako zalantzarik gabe eskaintzen dio bere burua, maitasunean bezala, eta, sentimendu horri esker, bultzada eta inspirazioa adieraztean, gaiarekin bat egitea eta identifikatzea lortzen du; dakizuenez, Schiller izan zen izaera honen adierazle nagusia. Beste izaerak ez du gaia xurgatzen, baizik eta bere gainean mantentzen da; ez du azpiratzen ezta zeharkatzen ere; aitzitik, askatasunez modelatzen du, artistak buztinarekin egiten duen bezala, eta, horrela, bere eskuetatik ateratzen den obra ez da egilearen ispilu; objektiboki agertzen da, izadiak sortu izan balu bezala. Azken mota honetakoak dira bai Goethe eta baita Savigny ere. Halaxe ematen du aditzera gorago aipatu dugu obrak, batez ere adi dabilzanentzat. Gaia bere interes eta sentimenduetatik guztiz aldentzea egongo balitz bezala, Savigny gainjarri egiten zaio; gaiari buruzko iritzia ematen duena ez da subjektua, baizik eta gaia bera da pentsamenduaren itxura hartzen duena, itxura objektiboa, non espiritu subjektibotik aldentzen den bakarria ez den berriki bilatu eta aurkitu dena, baizik eta pixkanakako heltze prozesu luzea eza-gutu duena, eta, ondutako fruitua bezala, jabeak hartu baino lehen zuhaitzean aspalditik zegoena, borroka eta ahalegin subjektiboetatik urrun. Savigny gaiarekiko zeukan independentzia hau, zuzenbide erromatarren aurrean zeukan jarrera kritikoa antzematen da bereziki. Zuzenbide erromatarrekiko zeukan lilurak ez zuen –erromanistei gertatu bezala– bere sena esklabotu, eta zerbait gertatu izate soila ez zaio nahikoa iruditzen; berak zergatia ere bilatzen du, baina ez kanpo zergatia bakarrik, baizik eta erakundearen helburu eta funts praktikoetan dagoen zergati intrintsekoa. Hori dela-eta, jurista praktikoentzat trebatzeko bide bat da obra hau, zentzu praktikoan batik bat.

Ez zuen asko iraungo arlo juridikoak obra honen lehen liburukiaren aurkezpenari egindako harrera beroak –niri, gaztea naizen aldetik, beste espresio batzuk erabili behar-ko nituzke sortu zidan inpresioa azaltzeko–. 1841ean bi liburuki gehiago agertu ostean, bere jarraitasuna denbora luzerako, edo agian betiko, oztopatuko zuen gertakari bat jazo zen. Tronura igo berria zen Prusiako errege Federiko Gilen IV.ak, Savignyren babesle eta miresle zenak, legegintzako ministerio berezi bat sortu zuen honen onerako, eta 1842ko Pazkoan sartu zen Savigny bertan, aurreko neguan Pandekten kurtsoa azkene-koz eman ondoren. Kanpoan zeukan ospeari dagokionez, Savignyren bizitza Goetherena bezalakoa zen. Baina Goetheri bere ohorea pixka bat handitu besterik egin ez zionak, bere genioari ezertan eragin gabe, Savignyri garesti atera zitzaion, berari nahiz jurisprudenziari beti damutuko zaien salneurrian; patuak ideiei espero zen ondorioa hainbestetan ukatzen dien kasuen artean –Federiko Gilen IV.a erregearen espiritu pizgarria benetan aberatsa zen ideiei zegokienez–, hauxe bai izan zela ondorioz negar-garrienera izan zuena. Legegintza Ministerioan sartu-aterak elkarren atzetik egin zituzten lankideen esanei erreparatuz gero, argi ikus daiteke askoz ere gaituagoak zeuden adituak topatzeaz gain, Savigny sei urtez egindako jardueraren emaitza ez zela beste arloetan burututakoaren mailara iritsiko. Zer-nolako esanahia zeukan Ministerio hark Savignyrentzat, segalaria uzta garaian sorotik itzularaztea ez beste, bizitza guztian zehar erein eta landutakoa jasotzeko prest zegoen unean? Beretzat bakarrik izan zitekeen aparteko uzta batetik banatu zuten, bere adina kontuan hartuta denbora tarte motz bat besterik gelditzen ez zitzaion arren bere eginahalak horri zuzentzeko. Ministerio hori onartzeak, igitaia utzi eta berriro ere aitzurra hartzea suposatzen zuen, urrezkoa izan arren gutxi egingo zuena 63 urteko gizon baten eskuetan.

Hauxe da Savigny betiko abandonatuko duen bere katedran ikusteko azken aukera. Esana dugu bere katedra lehen mailara eraman zuela Alemanian. Utzi zuen orduko, garbi asko ikusi zen beregatik zela katedra hori zen bezalakoa. Ordura arte Europako ia herrialde guztietatik etorritako ehunka ikaslek lekuri apenas aurkitu zuten gelan, non Puchta eta geroago Keller egon ziren, lekua soberan zegoen orain; Savignyren garaian, entzuleak aulki bila ibiltzen ziren, eta orain, aldiz, aulkiak entzule bila zebiltzala zirudien. Savigny irakasle gisa izandako ospea, idazle gisa izandakoa baino handiagoa zen ia,

baina, hala ere, katedratik aldendu baino lehen, sarritan izan nuen entzuteko aukera, eta aitortu beharra daukat ez zela egokitzen nik egina neukan irakaslearen irudira, Stahlen guztiz gauzatu ikusi nuenera. Hori bai, Savigny haren bereizgarri ziren ezaugarri guztiak zeuzkan: Goethe bezala, itxura aparta zeukan –diotenez, oso ederra izan zen gaztetan, Goethe bezala– eta ahotsa ezta, ozena, urrutitik esfortzurik gabe entzun zitekeena; ziurtasuna, duintasuna eta irmotasuna ageri zituen azalpenetan, eta bere ezpainenatik irteten zen guztia ebanjelioa bailitzan iristen zen auditoriora. Baina zerbait falta zela sumatzen nuen nik, Stahlek soberan zeukana eta agian Savigny bere gaztaroan izan zuena: azalpenen berotasuna, irakasleak bere lanean eta aztertzen duen gaian duen interesetik eratoritzen den berotasuna. Savignyren hizkera lasaia eta moderatua zen; erreka lautadan bezala irristatzen zen, garden, hondoraino garbi, lekuz kanpoko mugimendu gogorrik gabe, bor-bor egin gabe, aparrak sortu gabe, mendiko errekekin gertatu ohi den legez, entzulea murgildu eta goxatzeko gai. Objektibotasun hori zen –Savignyri idazle gisa jada sumatutakoa–, irakaslearen ezaugarri nagusia, zeina, nire ustez, ez zen gazteriarentzat oso aproposa, behintzat “jurista berrien” aurka zeukan joeragatik; izan ere, jurista berri horiek taldean eta izen zehatzak eman gabe aurkezten zituenean, erruki sentimendua sortarazten zuen auditorioan, zorigaitz ekidinezin baten erantzuleak bailiran ikusarazten baitzituen.

Esan daiteke Ministerioa onartu ondorengo lehen sei urteak, gure zientziari *Sistema* bukatuta ikustea eragotzi ziotenak direla, zeren eta, aurrez, bizpahiru liburu prestatzen zituen urtero Savigny. 1847an, bere isiltasunetik atera eta seigarren liburukia argitaratu zuen. Hurrengo urtean, Ministerioa uztean, idazteko grina itzuli zitzaion; ia hirurogeita hamar urte zituenean, ordea. Dena den, Goetheren kasuan bezala, indar hau nahikoa izan zen idazlearen obra osatzeko; 1853ra arte, lau liburuki kaleratu ziren, azken biak *Obligazioen Zuzenbidea* izenburu bereziarekin, autoreak bere obra amaitzeko itxaropena galdu zuenaren adierazle. Azken bi liburukiek indarrak galtzen ari zela erakusten zuten, eta Savignyren abilezia eta jakinduria aski frogatuta gelditu ziren munduari bera zahartzen ikustea eragotzi zionean.

Horrela, lasai igaro zituen bere bizitzako azken urteak. Bere egunak bukatu baino lehen, atsedean hartzeko astia izan zuen, berrogeita hamar lanurteko esfortzuaren ondoren. Atzera begiratzean, ikusi zuen patuak gutxi batzuei bakarrik eskaintzen dien moduko bizitza izan zuela, Weimarko printze poetak bezalakoa, hasieratik zoriontasunaren eguzkiak argiztatua, egonezin eta kezkarik gabeko bizitza, zoritxarrak ia itzalik ere egin ez zueneko, botere, lan, poz eta ohoreetan aberatsa, historiako liburuetan betiko idatzia, indar espiritual zein fisiko betea, eta aparteko kasuetan bakarrik topatzen diren mugetaraino hedatu zena.

Mundutik horrelako bertuteak dituen gizaki bat joaten denean, ez da harri nahiz brontzerik behar bere izena etorkizunera luzatzeko. Eta, hala ere, Savignyri bere jaioterrian, Frankfurten, monumentu bat ipintzeko ideia bultzatzeko baliatzen naiz aukera honetaz. Goethe ez ezik halako gizon bat sortu izanagatik goresgarria den hiriak, brontzeko hizkietan aldarrikatu beharko luke gorespen hori. Bere oparotasun materialak ez luke handitasun espirituala bertan ito beharko, baizik eta, aitzitik, merezi duen bezala ohoratzeko erabili beharko luke.